

MATIA
FUNDAZIOA

Jarduera Memoria
2015eko inpaktua



GURE EGITEKOA:

Pertsonari bere zahartze prozesuan lagundu eta haren ongizatea hobetzea, bere autonomia eta duintasuna sustatuko duten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortuz.

Matia Fundazioa irabazi asmorik gabeko Fundazio Pribatua da, interes orokorrekoa. 130 urtetik gorako esperientzia du Gipuzkoako zerbitzu sozio sanitarioak eskaintzeko orduan, eta haren Patronatua zenbait eremu profesioaletako 20 pertsonaz osatua dago. Horiek modu independentean eta beren borondatez parte hartzen dute Fundazioaren gobernantzan.

Gizarteari laguntzeko bokazio garbiarekin, **Matia Fundazioan** ezagutzaren eta berrikuntzaren etengabeko bilaketa, garapena eta aplikazioa nabarmentzen dira. Gero, horiek gizartera hedatzen dira (I+G+b), 2003. urtetik abian dagoen **Matia Gerontologia Institutuaren bitartez**.

Zerbitzuak laguntza maila desberdinetan eskaintzen dira, osasunaren esparruan nahiz gizarte zerbitzuen eta desgaitasunaren esparruan, pertsonarengan oinarritzen den eta autonomiaren, duintasunaren eta pertsonalizazioaren printzipioak kontuan hartzen dituen eredu integral bat erabiliz.

MATIA  **EREDUA**®

Arretaren printzipioak:


DUINTASUNA

AUTONOMIA

PERTSONALIZAZIOA

1. Pertsonengan duen inpaktua

Matia Fundazioarentzat pertsonak dira aldaketaren motorra. Pertsonekin eta pertsonentzat lan egiten dugu. Zorroztasunez lan egiten dugu, ezagutzan eta gaitasunetan oinarrituz. PROFESIONALITASUNA ezinbesteko balioa da guretzat, horrek berekin baitakar tratu ona, etengabeko hobekuntza, kalitatea, esperientzia, prestakuntza, berrikuntza eta diziplinartekotasuna.




Langileen gaikuntza eta espezializazioa:

- **10.321 ordu** prestakuntza
- **4.065 ordu barneko prestatzaileen aldetik**
- **111 ikasle** praktiketan, **38 prestakuntza programatan**

2. Zerbitzuen inpaktua


Matia Fundazioaren jarduerak hauskortasun eta/edo mendekotasun egoeran bizi diren adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu sozio sanitarioak eskaintzea du helburu.

25.643
pertsonei lagundu diegu



2. Zerbitzuen inpaktua

Jarraitutasuna zainketetan



Gizarte Zerbitzuetako lanaldi kopuru baliokidea: 562
Osasun Zerbitzuetako lanaldi kopuru baliokidea: 187



Beste adierazle batzuk

Matia Orienta

- Kontsulta guztien %100 ebatzi dira.
- %100ek zerbitzua gomendatuko lukete.
- Gogobetetze maila: 5etik 4,7.

OSASUN ZERBITZUAK

Errehabilitazio zentroak

- Pertsona guztien %89k hobera egin du bere patologian.
- Estandarrak %100 bete dira. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.
- Gogobetetze maila: 8,83.

Ospitalea eta kanpo kontsultak

- 1.272 ospitaleratze:
 - 148 psikogeriatrian.
 - 398 errehabilitazioan.
 - 392 susperraldian.
 - 288 zainketa aringarrietan.
 - 46 egonaldi luzeetan.
- 1.986 kanpo kontsulta.
- Pertsona guztien %80k gizarte laguntza jasotzen du.
- Pertsona guztien %88k laguntza helburuak betetzen ditu.
- %97,5 bete dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren estandarrak.
- 111 zaintzailek eta senitartekok jaso dute prestakuntza
- Gogobetetze maila: 9,2.

Arreta psikosoziala gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonentzat

- 1.099 artatutako pertsona (pazienteak eta horien senitartekoak, gaixotasunean nahiz doluan zehar).
- Dolu terapiara joaten diren pertsonen %90en araber, laguntza psikologikoak galera egoerari aurre egiten lagundu die.
- Bizitza amaierako arreta psikosozialari buruzko 35 kanpoko prestakuntza ekintza (500 pertsona baino gehiago).

GIZARTE ZERBITZUAK

Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko ebaluazio zerbitzua:

- 15.308 balorazio.
- 2015eko abuztuaren 1ean desgaitasun eskaeren balorazioa gehitu zen zerbitzuaren jarduerara.

Matia etxean

- Eskainitako orduak: 8.855.
- Erabiltzaile eta senitartekoen %100ek zerbitzua gomendatuko luke.
- Kasuaren kudeaketa, artatutako pertsonen %100ak.
- Gogobetetze maila zerbitzuaren pertsonalizazioari dagokionez: 9.

Eguneko zentroak

- %24k mendekotasun funtzionala du.
- %77k narriadura kognitiboa du.
- %93k ohitura, lehentasun eta itxaropenen balorazioa du.
- 2,13 urteko egonaldia, batez beste.
- Familia guztien %96,8k zerbitzua gomendatuko luke.
- Gogobetetze maila: 9,2.

Egoitza

- %47k mendekotasun funtzionala du.
- %83k narriadura kognitiboa du.
- Lokailuen % erabilera %5etik beherako da 4 zentrotan.
- %94k ohitura, lehentasun eta itxaropenen balorazioa du.
- Familia guztien %95 maiz joaten da zentrorra.
- 53 erabiltzailek eta senitartekok batzordeetan parte hartzen dute.
- Familia guztien %96k zerbitzua gomendatuko luke.
- Gogobetetze maila: 8,8.

3. Boluntarioen inpaktua

Boluntarioek betetzen duten eginkizuna oso garrantzitsua da **Matia Fundazioaren** egunerokotasunean, arretaren kalitatea eta pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzen baitu. Horregatik, elkarrekin eta boluntarioekin dugun lankidetzaren funtsezkoa da **Matia Fundazioan**, oso alderdi garrantzitsua baita gure taldeek eskaintzen duten eginkizun profesionalerako, betiere altruismoan eta elkartasunean oinarrituz.


1.395
boluntario

28.000
ordu baino gehiago eskaini dira

%98k
laguntza sozio familiarra jasotzen dute egoitza unitateetan

%12k
boluntarioen laguntza jasotzen dute egoitza unitateetan

74
elkarte laguntzaile (boluntariotza eta jarduera soziokulturalak)



4. Ikerkuntzaren inpaktua

Matia Gerontologia Institutua ezagutza aplikagarria sortzera eta hura gizartera hedatzera bideratutako unitatea da (I+G+b). Horrenbestez, **Matia Fundazioak** haren bitartez helarazten eta aplikatzen du ezagutza hori bere zentroetan eta zerbitzuetan.

MATIA
INSTITUTO GERONTOLÓGICO

Estatuko gerontologia ikerkuntzako institutu pribatu bakarra.

Espezializazio eremuak

13 pertsonako taldea

Lagunkoitasuna eta zahartze aktiboa

Plangintza gerontologikoa eta arreta ereduak

Narriadura kognitiboa eta dementzia

Barne Inpaktua

Matia Gerontologia Institutuaren helburu nagusietako bat ezagutza aplikatua sortzea da, hala, Matia Fundazioko zerbitzuak etengabe hobetzen jarraitzeko.



Kanpo Inpaktua

Beste eragile pribatu eta erakunde batzuekin batera lan egiten dugu ezagutza espezializatu hedatu eta zahartzaroan ahalik eta ongizaterik onena lortzeko politika, produktu eta zerbitzu berriak garatzeko orduan.



POA: Pertsonarengan Oinarritutako Arreta

5. Inpaktu ekonomikoa


Matia Fundazioa irabazi asmorik gabeko fundazio pribatu bat da, interes orokorrekoa. Gure jarduera osoaren %85 baino gehiago modu adostuan edo proiektuak esleituz betetzen dugu, Administrazio Publikoarekin.

Diru sarreren jatorria M€



GUZTIRA: 47,56 M€

Diru sarreren xedea M€



GUZTIRA: 47,56 M€

Emitzaren % 100 Matia Fundazioan berrinbertitzen da.

Diru sarreren jatorriaren xehetasunak

• Egoitza zerbitzuen eta eguneko zentroyen ituntze hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiarekin	18,98 M€
• Ituna Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin	12,45 M€
• Itundutako gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen baterako finantzaketa	9,42 M€
• Gizarte eta osasun jardueren zerbitzu pribatuak	
• Aseguru entitateak eta beste batzuk	0,59 M€
• Finantzaketa publiko lehiakorra (Eusko Jaurlaritza eta Europar Erkidegoa)	0,61 M€
• Hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin	0,20 M€
Guztira	47,56 M€

Zerbitzuen fakturazioa

• Egoitza	28,46 M€
• Ospitalea eta Kanpo Kontsultak	8,69 M€
• Birgaitze anbulatorioa	4,05 M€
• Eguneko Zentroak	2,83 M€
• Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko informazioa lortzeko zerbitzua	1,52 M€
• Matia Gerontologia Institutua	1,23 M€
• Gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonentzako arreta psikosoziala	0,17 M€
• Matia Etxean	0,15 M€
• Beste batzuk	0,46 M€
Guztira	47,56 M€

2015eko kanpo aintzatespenak

- **Más Salud Gipuzkoa saria** dementziak jotako pertsona zaharren arretan laguntza unitate berritzaile bat garatzeagatik. *Diario Vasco eta Sesosgi (Gipuzkoako Zerbitzu Sozio sanitarioak).*
- **Beltran Báguena saria** 2015. urtean "Revista Española de Geriatria y Gerontología" aldizkarian argitaratutako artikulurik onenari, gizarte eta portaera zientzien esparruan. *Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkarte.*
- **Humanizando la Sanidad saria** "Etxean bezala" ekimenari. *TEVA Foro Sociala elkarte.*
- **Berrikuntzaren ACRA saria** saria Arreta hobetzen ari gara? proiektuari. Pertsonarengan oinarritutako arreta ereduarekin lotutako esku hartzeen ondorioak egoitzako talde batean. *Associació Catalana de Recursos Assitencials (ACRA).*
- Otezuri eta Iza Zentroek Eusko Jaurlaritzak luzatutako **Bikain Zilarra ziurtagiria** eskuratu dute. Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duen ziurtagiria da.

Kongresuetan lortutako sariak:

- **Salgado Alba 2015 saria** (esparru klinikoa) Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen 57. Kongresuan aurkeztutako poster bidezko komunikazio onenari.
- **Salgado Alba 2015 saria** (gizarte eta portaera zientzien eremua) Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen 57. Kongresuan aurkeztutako poster bidezko komunikazio onenari.
- **Eremu klinikoko poster onenaren saria** Euskal Herriko Geriatria eta Gerontologia Elkartearen XIV. Kongresuan Zahartzarora.

GURE IKUSPEGIA:

Zahartze eta desgaitasuneremuan, pertsonengan oinarritutako erantzun aditua eta iraunkorra emango duen gizarte eraldaketarako eragilea izatea.



Erabilitako metodologia. **Matia Fundazioaren** inpaktua neurtzeko Acumen metodologia erabili dugu. Acumen's building blocks for impact analysis izeneko metodologia aldatetaren teorian oinarrituta dago, eta, hari esker, zerbitzuek pertsonengan eragiten duten amaierako inpaktua (outcome/impact) nola garatzen den identifika dezakegu. Metodologia simple eta pragmatiko horrek neurtu daitezkeen inpaktua adierazleak lortzea ahalbidetzen digu, erakundearen jarduerari buruzko hausnarketa sakona egin ahal izateko horrela. Lan hori Sinnple · Consultores de Innovación Social erakundearen laguntzarekin egin dugu.

MATIA
FUNDAZIOA
Nagusien ongizatea garatuz

i **MATIA ORIENTA ZERBITZUA**
Doako zerbitzua
(+34) 943 31 71 23
info@matiafundazioa.net

Jarrai gaitzazu hemen:

